



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2019ko uztailaren 24an Udal Batzarrak buruturiko ezohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta bederatzi korporakide bildu dira, batek ezin etorria adierazi du.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2019ko uztailaren 4an buruturiko bilkurako akta onartzea, bidezkoa balitz.

Alkateak adierazi du 2019ko uztailaren 4ko aktan, seigarren puntuan hain zuzen, erabakien bigarren puntuan, akats bat dagoela "N.O.L.eta R.A.U. zinegotzien % 33eko lanaldirako liberazio soldata maila Udalitz-eko 21.ean finkatzeko proposamena ontzat ematea" ondo dago, baina gero parentesi artean zenbatekoa gaizki dagoela, 22.311,45 jarri ordez 14.725,55 jarri behar duela.

Zuzenketa honen ondoren, 2019eko uztailaren 4an buruturiko saioaren akta onartzen da.

2.- 2018ko inbentarioaren eta kontu orokorraren onarpena.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik bertaratutako hamar korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- 2018ko Zestoako Udalaren Kontu Orokorra eta Inbentarioa onartzea.

BIGARRENA.- 2018ko Zestoako Udalaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegira igortzea.

3.-24/2018 Errege Dekretu-Legea: Udal langile eta kargu publikoen soldata igoera.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamar korporakideen aho bateko aldeko botoekin, honako erabakia hartu du:

- 2019-07-01tik aurrera %0,25eko soldaten igoera egitea udal langile eta kargu publikoei.

4.- 2016ko maiatzaren 26ko Udalbatzarrean hondakin-sistema aldatzearen alde hartutako erabakia bertan behera uztea. Alkate jaunak jakinarazten du, deialdian 2016ko abenduaren 3ko erabakia bertan behera uztea jaso dela baina, maiatzaren 26koa dela. Ondoren adierazi du, 2014an sistema aldatu zela, lehen zegoen edukiontzi sistematik sistema misto batera.

2015an legealdia aldatu zela dio eta Udal Gobernu berriak, eta iritzi denak errespetagarriak direla aipatu du, sistema berriz aldatzea erabaki zuela gehitu du, edukiontzi kontrolatu sistema batera. Erabaki hau, 2016ko maiatzaren 26an Udal

Batzarrean hartu zela adierazi du eta erabaki hau ez dela gauzatu azpimarratu du. Erabakia indarrean dagoenez, zentzurik ez duela gehitu du.

Beraz, bertaratutako hamar zinegotzietatik aldeko sei boto eta lau abstentziorekin ondorengo erabakiak hartu dira:

LEHENA.- 2016ko maiatzaren 26ko Udal Batzarrean hondakinen bilketa sistema aldatzeko hartutako erabakia bertan behera uztea.

BIGARRENA.- Erabakia Urola Erdiko Mankomunitateari jakinaraztea.

5.- Galdera eta erreguak.- J.M. zinegotziak gai bat mahairatu nahi duela adierazi du. Azken boladan, Zestoako nerabe batzuen artean zabaltzen ari den ohitura bat aipatu du, iluntzean errepidean urez betetako globo eta botilak jarri eta kotxeen kontra botatzekoa hain zuen. Hau oinezkoei egin ezkeru busti bakarrik egiten zarela, baina errepidean istripuak gerta daitezkeela eta neurriak hartu beharko liratekeela gehitu du. Egoera honen aurrean zein ekintza egin daitezkeen galdegin du, gaian ahal den erarik egokienean konpontzeko.

Zinegotzi guztien aho bateko erabakiz, adostu da idatzi bat argitaratzea gai honi buruzko zalantza agertuaz, eta ondoren hezkuntzarekin eman daitezkeen pausoak aztertzea.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta berrogei minutu direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.
ALKATEAK,